

ZIBERGELA



Slideshare eta Google Presentation: aurkezpenak partekatzen



Aurkezpenak sarean jarri eta helbidea jakinaraziz, nahi denari deskargatzeko aukera eman dakioke

IBON AIZPURUA UGARTE
Eleka ingeniari linguistikoa

Aurkezpenak egiteko Power Point eta OpenOffice.org Impress moduko aplikazioak sortu zirenean sekulako berrikuntza izan zen, aurrez, gardenkiak erabiltzen baitziren funtzio hori betetzeko. Aplikazio horiekin nahikoa da aurkezpena USB memoria batean eramatea, ondoren ordenagailu eramangarri batekin eta proiektorearekin erakutsiko baita prestatutakoa.

Baina zer gertatzen da aurkezpenen erabili den materiala partekatu nahi bada? Sarean alferrikako trafikoa sortuz bidaliko zaie fitxategia nahi duten guztiei? Eta fitxategiaren tamaina posta-zerbitzariak onartzen duena baino handiagoa bada? Ondoren aurkeztuko diren bi aplikazioek dakarte solu-

zioa: partekatu aurkezpenak erakusteko prestatuta dauden webguneetan.

Webgune hauek helbide bakar bat ematen diote aurkezpen bakoitzari, horrela, interesa duten guztiei web helbide hori bidaltzea nahikoa izango litzateke. Ondoren norberak bere ordenagailura deskargatu ahal izango du aurkezpena hala nahi badu.

SlideShare

Aurkezpenak sarean partekatzeko helburuarekin sortu zen lehen webgunea izan zen, gaur egun arlo horretako sareko komunitaterik handiena hark osatzen du. Erabiltzeko erraztasunak eta argitasunak egin dute ezagun gune hau, eta bide horretan etengabe ari dira hobekuntzak sartzen. Web 2.0 motako aplikazio bat dela esan daiteke; izan ere, aurkezpenei etiketak esleitzea uzten du, beste erabiltzaileek komentarioak egiteko aukera dute, eta RSS jarioetara sinkartzeko aukera ere badu. Aukera horiekin, erabiltzaile batek argitaratzen dituen aurkezpenak jarraitu daitezke, esate baterako.

Aplikazioa erabiltzea oso sinplea da; erregistratu ondoren, aur-

kezpena duen fitxategia igo egin behar da. Horretarako, formulario baten bidez aurkezpenari buruzko datu batzuk eskatzen dira; formulario horretan bertan, gaiarekin lotutako termino batzuk etiketa moduan jar daitezke. Fitxategia ezin da 30 MB baino tamaina handiagokoa izan, muga hori nahikoa izaten da gehienetan. Formularioa bete ondoren, fitxategia igo, eta, hortik aurrera, argitaratua geratzen da aurkezpena.

Aurkezpena Flash teknologia erabiliz egiten da, diapositibak aurrera eta atzera egiteko botoiak ditu azpialdean, eta, nahi bada, pantaila osoa hartzen duela ere egin daiteke aurkezpena. Aukera hori oso egokia da jende aurrean aurkezpena egiteko zuzenean SlideShare erabiliz.

Jende guztiairekin partekatu beharrean norberak aukeratutako erabiltzaileekin soilik partekatzeko ere posible da; horrela, aurkezpena talde murritzuko batek soilik ikusiko du. Hori interesgarria da bezeroen bati aurkezpena egin behar bazaio, edo lantalde batean eduki bat prestatzerako orduan.

Berriagoa izan arren, Google Presentation indartsu sartu da sarean, eta editatzeko aukera eskaintzen du

SlideShare-k duen beste ezaugarri bat *slidecasting* deitzen da, hori egitean aurkezpenari mp3 formatuko soinu fitxategi bat lotzen zaio aurkezpeneko azalpenekin. Hori sinkronizatu ondoren, aurkezpenarekin batera azalpenak entzungo dira; argazkiekin osatutako aurkezpena bada, musika ere badago jartzea era horretara.

Google Presentation

Nahiz eta SlideShare baino berriagoa izan gogor sartu da Google Docs sareko bulegotika paketeko osagai berria. Aurkezpenak argitaratzeaz gain, editatzeko aukera ere ematen du, eta, horrela, lankidetzan osatzeko aukera ematen du. Gainera, aldatetako egiten badira, RSS jario bidez jarraitzeko aukera ematen du.

Jardunaldietako materiala argitaratzeko, egindako bidai bateko argazkiekin aurkezpena osatu eta lagunen eskura jartzeko, aukera asko ematen dituzte tresna hauek. Oso plataforma egokia dira helburu horiek betetzeko.

SlideShare
www.slideshare.net
Google Presentation
docs.google.com

Zibergelako artikulu guztiak:
www.baleike.com/blogak/zibergela

Lynksee zerbitzuak ateak itxi ditu

Duela hamabost egun aurkeztutako Lynksee zerbitzuak ateak itxi egin behar izan ditu. Google-n Ad-sense iragarki-sistemarekin finantzatzen zuten proiektua baina honen beraian plataforman argitaratzen zen legez kanpoko edukia (taldeen letrak esaterako) ezabatzera behartu zituen. Horrekin bat ez zetozenez publizitatea kentzea erabaki zuen baina horrekin zeukaten diru iturri handiena ere galdu egin zuten. Beste bide batzuetatik dirua biltzen saiatu dira baina emaitza positiborik lortu ez dutenez datorren abenduaren 21ean web gunea itxiko omen dute eta plataformaren iturburu kodea aske utzi.



FileUrls: fitxategi handiak partekatzeko gune

Askotan postaz fitxategi handiak bidaltzeko arazoak izaten dira, posta-zerbitzariak fitxategien tamainari muga jartzen baitiote. Arazo horri konponbidea emateko denbora batez beraian web gunean gordetzen uzten duten zerbitzuak daude. Horrelako zerbitzua eskaintzen du FileUrls webgunea, eta, hala ere, bere ezaugarri nagusia uzten duten tamaina da 250MB arteko fitxategiak igo baitaitezke. Horrez gain, zenbat egunetan eduki nahi den ere konfiguratu daiteke gehienez zazpi egun arte eta pasahitz batekin babestu ere bai, fitxategia jaso behar duena bakarrik jaitsi dezan.

SlideShare
www.fileurls.com

Euskarazko wikipediaren posta-zerrenda sortu da

Wikipediaren euskarazko bertsioak aurreko astetik badu elkarlanerako beste tresna bat, posta-zerrenda bat hain zuzen ere. Wikipediaren orokorreko posta-zerrenden plataforman integratua dago eta lankideen arteko komunikazioa sustatzea du helburu. Bertan artikuluen berriei buruz, dauden artikuluetan egin beharreko aldatetako eta orokorrean euskarazko wikipediaren inguruko guztiaz ari ahal izango da.

<http://lists.wikimedia.org/mailman/listinfo/wikieu-l>